

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

2627

AGINDUA, 2020ko ekainaren 23koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez iragarri eta arautzen baitira ikus-entzunezkoen ekoizpena sustatzeko 2020. urteko dirulaguntzak.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuan bildutako xedapenekin bat etorriz, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari dagoz-kio, besteak beste, ikus-entzunezkoen arloan garatzen diren arte eta kultura mailako jarduerak sustatu, finkatu edota hedatzeko eskumenak. Eskumen horiek Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari esleitzen dizkio apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuak, Kultura eta Hizkuntza Politikaren Sailaren egi-tura organikoa ezartzen duenak.

Ondorio horretarako, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eskura dituen sustatze-bitartekoak erabiltzea egokitzat jo du. Erabilitako bitartekoaren artean diruaguntzak emateko deialdi publikoak daude.

Kontuan hartuta ikus-entzunezkoen arloa egungo gizartean gero eta garrantzitsuagoa dela eta haren garapenak Euskal Autonomia Erkidegoko kultura eta ekonomia aberasten dituela, beste deialdi bat egin da, ikus-entzunezkoen sektorean aurkeztutako proiektuetan zentratuko dena. Deialdi honen bidez ikus-entzunezko lanak ekoiztea sustatuko da (zinemarako fikziozko film luzeak, zinemarako animaziozko film luzeak, sortze-dokumentalak eta film laburrak).

Deialdi honen helburu nagusia kulturaren ikuspegitik gure lurraldean hain garrantzitsu eta beharrezkoa den ikus-entzunezko azpiegitura finka dadin sustatu eta laguntzea da. Horrela, proiektuei zuzendutako laguntza selektibo hauetako batzuk automatikoki ematen diren laguntza bihur dai-tezke, lortutako emaitzak kontuan hartuta edota betekizun jakin batzuk betetzen dituztela-eta emango direnak.

Halaber, agindu hau Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren 2018/2020 urteetarako dirulagun-tzen plan estrategikoaren barruan dago sartuta.

Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamendua betez, Kate-gorien arabera Salbuespen Erregelamendu Orokorra izenez ezagutzen dena, zeinaren bidez laguntza-kategoria zehatz batzuk barne-merkatuarekin bateragarriak direla adierazten den, Tratatuaren 107. eta 108. artikuluetan ezarritakoaren arabera; laguntzen erregimen hau Euro-par Batzordeari jakinarazteko betebeharretik salbuetsita dago barne-merkatuarekin bateragarria baita Tratatuaren 107 artikulua 3. zenbakiaren arabera, 651/2014 Erregelamendu horren 54. artikulua eta I kapituluaren ezartzen diren baldintzak betetzen baititu.

Ondorioz, hau

EBAZTEN DUT:

I. KAPITULUA

ARAU OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da 2020ko ekitaldian zehar ikus-entzunezkoen produkzioaren alde dirulaguntzak emateko deialdia egin eta horretarako baldintzak ezartzea.

2.– Deialdi honetan ezarritako laguntzen gehienezko zenbatekoa, guztira, bi milioi berrehun eta hirurogei mila (2.260.000) eurokoa da.

2. artikulua.– Laguntza-modalitateak.

Hauek dira laguntza-modalitateak:

1.– Film luze eta dokumentalen produkziorako modalitate hauei zuzendutako laguntzak, agindu honetako II. kapituluan ezartzen diren baldintzetan:

a) Zinemarako diren fikziozko film luzeak ekoizteko laguntzak.

b) Aurrekontu txikiko zinemarako diren fikziozko film luzeak ekoizteko laguntzak.

c) Zinemarako animaziozko film luzeak ekoizteko laguntzak.

d) Sortze-dokumental film luzeak produkziorako laguntzak.

2.– Film laburren produkziorako laguntzak, III. kapituluan ezartzen diren baldintzetan:

3. artikulua.– Onuradun izateko baldintzak.

1.– Deialdi honetako laguntzak eskuratu nahi dituztenek modalitate bakoitzean dauden betekizunak bete behar dituzte. Halaber, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua 2 eta 3 ataletan ezartzen diren betekizunak bete behar dituzte.

2.– Ezingo dute deialdi honetako dirulaguntzarik eskatu laguntza publikoak lortzeko zigor administratibo edo penalik duten erakundeek, ezta ere horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekurik dutenek ere. Halaber, ezingo dute dirulaguntzarik eskatu sexu-bereizkeria dela-eta zigor administratibo edo penalik duten erakundeek, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenaren indarrez.

3.– Ezin izango dira onuradun izan dena delako enpresak, laguntzaren bat itzultzeko agindua jaso badute, aldezturik Europako Batzordeak hala erabaki duelako, laguntza hori legez kanpoko eta barne-merkatuarekin bateraezina dela irizita; beste horrenbeste gertatuko da krisian dauden enpresekin ere, hain zuzen ere krisian dauden enpresa ez finantzarioak salbatu eta berregituratzeko estatu-laguntzei jarraibideetan xedatutakoaren arabera (AO, C249, 2014-07-31).

4.– Agindu honen bidez ematen diren laguntzak jaso ahal izateko, beharrezkoa da zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea, eta hala badagokio, dirulaguntzak itzultzeko prozedurei dagozkienak. Baldintza hori betetzea nahitaezkoa izango da onuradun izaten jarraitzeko, eta, hortaz, laguntza emateko unean eta ordainketak egiterakoan egiaztatuko da betetzen dela.

4. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Agindu honen babesean ematen diren dirulaguntzak eskuratzeko eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindua argitaratu eta biharamunetik aurrera.

2.– Pertsona fisikoek bide elektronikoak erabili ahal dituzte deialdi honetako izapideak eskatzeko, kontsultatzeko eta bideratzeko.

Eskabidea egiteko eta dokumentazioa aurkezteko bide horietako bat erabiliz gero -presentziala edo elektronikoa-, horrek ez du esan nahi bidez aldatu ezin denik prozeduraren ondorengo izapideetan, alegia, edonoiz aldatu daiteke bidea, halaxe jasotzen du-eta 21/2012 Dekretuak, otsailaren 21eko, Administrazio Elektronikoari buruzkoa.

Eskabideak aurrez aurre aurkeztu ahal izango dira Zuzenean Zerbitzuko bulegoetan hitzordua eskatuta soilik (<https://www.euskadi.eus/hitzordua-zuzenean>), EAEko erregistro laguntzaileetan (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan jasotakoak) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoen aurrean.

3.– Pertsona juridikoek bide elektronikoak erabiliz aurkeztuko dituzte deialdi honetako izapideak eskatzeko, kontsultatzeko eta bideratzeko.

4.– Eskaerak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak bai bide presentziala erabiliz bai bide elektronikoa erabiliz, nola tramitatu behar diren azaltzen dituzten argibideak Zuzenean Zerbitzuko bulegoetan hitzordua eskatuta soilik eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan ere honako helbide hauetan daude ikusgai:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0127206> fikziozko zinemarako film luzeetan.

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0127210> aurrekontu txikiko fikziozko film luzeetan.

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0127207> animaziozko zinemarako film luzeetan.

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0127208> sortze dokumental film luzeetan.

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0127209> film laburretan.

Eskabidearen ondoko izapideak bide elektronikoa erabiliz hemen egin daitezke: <http://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

5.– Pertsona eta erakunde eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute eskaera, atxikitako dokumentazioarekin batera. Halaber, pertsona edo erakunde eskatzaileak aukeratzen duen hizkuntza hori erabili ahal izango da prozedura osoan, Euskaren Erabilpena Arautzen duen 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeko 5.2.a) eta 6.1 artikuluek xedatzen duen moduan.

6.– Eskaerarekin batera, deialdi honetako modalitate bakoitzerako datozen kapituluetan adierazitako dokumentuak aurkeztuko dira.

Aurkeztuko diren dokumentu elektronikoak erabilitako bidea –presentziala edo elektronikoa- edo nolakoa dela ere ondorengo ezaugarriak izan beharko dituzte:

a) Deskargatzeko ereduak erabiliko dira holakoak eskatzen direnean, eta ereduaren formatuan aurkeztuko dira.

- b) Bestelako dokumentazioa aurkeztuko da ahal bada PDF formatuan.
- c) Dokumentazio elektroniko guztiaren gehienezko tamaina 30 Mb izango da.
- d) Bideoak web helbide baten bidez aurkeztu ahal izango dira kontsultatu ahal izateko, dagoen agirian.

7.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin bat etorriz, interesdunak eskubidea dute ez aurkezteko Administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein Administrazio batek egindakoak diren eskatutako agiriak. Horrela, haien kontsulta eta ateratzea Administrazioak egin ahal izango du, interesdunak aurka egin ezean. Kasu horretan, eskatzaileak aurkeztu beharko ditu.

8.– Deialdi honen organo kudeatzaileak egiaztatuko ditu, automatikoki, behar hainbat aldiz, dirulaguntza eskatu duten pertsonen zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko baldintzak betetzen dituztela, eta horretarako ez du pertsona horien oniritzia beharko, halaxe xedatzen du-eta 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Hala ere, pertsona fisiko eskatzaileak berariaz aurka egin ahal izango dio egiaztapen hori egiteari, eta, kasu horretan, dagozkion egiaztatzeak aurkeztuko ditu.

9.– Eskabideak aurkezteak, deialdi honetako oinarriak definitzen dituzten baldintzak espresuki eta formalki onartu direla adierazten du.

5. artikulua.– Laguntzak kudeatzea.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako laguntzen kudeaketa-zereginak betetzea.

6. artikulua.– Egindako akatsak zuzentzea.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, ikusten bada zer bait falta dela edo errakuntzak daudela, eskatzaileari eskatuko zaio akatsa zuzendu dezan edo falta diren dokumentuak aurkez ditzan, eta horretarako hamar eguneko epea emango zaio, dagokion jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta. Era berean, ohartarazi egingo zaio ezen, epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, aurrez jakinaraziko zaion ebazpen baten bidez, edo dagokion izapidea egiteko eskubidea galduko duela.

Bitarteko elektronikoak erabiltzera behartua dagoen norbaitek bide presentziala erabiliz aurkezten badu eskaera, aurkezpen elektronikoaren bitartez zuzen dezala eskatuko zaio interesdunari. Ondorio horietarako, zuzenketa hori egin den eguna joko da eskaeraren aurkezpen-datatzat.

7. artikulua.– Laguntzak emateko prozedura.

1.– Deialdi hau lehiaketa prozeduraren bitartez ebatziko da modalitate guztietan, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 51.4 artikuluan xedatutako eran (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Testu Bategina).

2.– Proposamenik ez dagoelako edo dauden proposamenek balorazio fasean gutxieneko puntuazioa gainditzen ez dutelako modalitateetako bati –film laburrena salbu– bideratutako diru-kopurua agortzen ez bada, sobera geratzen den kopurua oraindik ebazteke dauden beste modalitateetako proiektuetara bideratuko du dagokion Balorazio Batzordeak, modalitate bakoitza finantzatzeko diru-zenbatekoa agortzearen ondorioz laguntzarik gabe geratzeko proposatu diren eta balorazio onena jaso duten proiektuen artean.

3.– Balorazio fasean puntuazio onena jasotzen duten proiektuek dirulaguntza guztia jasoko dute, modalitate bakoitzean ezarritako mugak errespetatuta, puntuazio-hurrenkeraren arabera eta modalitate bakoitzari bideratutako diru-zuzkidura osoa agortu arte.

4.– Laguntza jasotzeko modua duen azken proiektuak oso-osorik dagokiona jasotzerik ez duenean jadanik nahikoa diru-zuzkidudarik ez dagoelako, bakarrik emango zaio dirulaguntza baldin eta, batzordearen iritziz, eman dakioken laguntzaren zati horrek bermatzen badu proiektuaren bideragarritasuna.

5.– Laguntza jasotzeko, nahitaez lortu behar da modalitate bakoitzean ezartzen den gutxieneko puntuazioa.

6.– II. kapituluko II. atalean araututako modalitatean, proiektuen hurrenkera 29. artikuluko balorazio-faseetan eskatutako gutxieneko puntuazioa gainditzen dutenen artean ezarriko da, baldin eta bermatzen badute laguntzak modu ekitatiboan banatuko direla gizonen zuzendaritza duten proiektuen eta emakumeen zuzendaritza duten proiektuen artean.

8. artikulua.– Balorazio Batzordeak.

1.– Aurkezten diren eskabideak ebaluatzeko eta baloratzeko, bi balorazio-batzorde eratuko dira:

a) Film laburren produkzioa modalitatearen balorazio-batzordea.

b) Film luzeak eta dokumentalak ekoizteko modalitateen balorazio-batzordea.

2.– Batzordeetako kideak hauek izango dira:

Batzordeburua: Kultura Sustatzeko zuzendaria, eta falta denean batzordekide zaharrenak ordezkaturiko du.

Lau aditu-profesional, Kulturako sailburuordeak izendatuak eta aztertu beharko dituzten laguntza-modalitateekin zerikusia dutenak.

3.– Batzordeetako idazkari gisa, hitzarekin baina botorik gabe, Kultura Sustatzeko Zuzendari-tzako teknikari bat arituko da, bertako zuzendariak izendaturik. Idazkariari dagokio batzordearen jokabidearen legalitate formalaz eta materialaz arduratzea.

4.– Aldi berean, gai zehatzak aztertzeko Balorazio-batzordeen bileretan parte har dezakete bertaratuen gehiengoak onartzen dituen eta jorratu beharreko gaiari buruz jantzita dauden pertsona guztiek, eta hitz egin bai baina botorik ezin izango dute eman.

5.– Balorazio-batzorde horietarako izendatutako aditu-profesionalek ardurapeko aitortpena aurkeztu beharko dute, honakoak frogatzeko: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean ezartzen diren abstentziorako arrazoiren batean eroriak ez daudela; eskatzaileek aurkeztutako agiriak proiektuak baloratzeko baino ez direla erabiliko eta hori deialdi honetan ezarritako irizpideekin bat etorri egin dela; eta, ebazpen-proposamena eman ondoren, espedienteetako agiri guztiak deialdia kudeatzen duen organoari itzuliko zaizkiola.

6.– Balorazio-batzordeetako kideak izendatzerakoan Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.7 kapituluan xedatutakoa beteko da.

7.– Balorazio-batzordeen behin betiko osaera Kulturako sailburuordearen ebazpenaren bitartez EHAAn argitaratuko da, eratu aurretik interesatuek errefusatzeko duten eskubidea erabil ahal izan dezaten, lege ezarritako zehaztapen eta baldintzetan.

8.– Batzorde horiek, adostasunez erabakiko dituzte eta Kulturako sailburuordeari aurkeztuko dizkiote onartzeko/ez onartzeko proposamenak, eta laguntza-modalitate bakoitzerako ezarritako esleipen-irizpideetan oinarrituta, dirulaguntzak emateko/ez emateko proposamenak.

Proposamen horietan ordezeko onuradunak izendatu ahal izango dira, gerta baitaiteke hautatutakoek deialdi honetan zehaztutako baldintzei uko egitea edo horiek ez bete edo ez onartzea. Gorabehera hauetakoren bat suertatuz gero, ordezekoak jasoko duen dirulaguntzaren zenbatekoa hasieran onuradun izendatu zenari ordaindu gabe geratzen dena izango da, baina eskatutako kopuruaren barruan. Deialdiko baldintzei uko egin edo horiek onartu ez edo betetzen ez dituen onuradunak ordaindu zaion dirulaguntzaren zatia gehi aplikatu beharreko legezko interesak itzuli beharko dizkio Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari.

9.– Balorazio-batzordeek, beharrezko ikusten dutenean eta aurkeztutako eskabideak egoki ebaluatze aldera, behar adina azalpen eskatu ahal izango dizkiete eskatzaileei.

9. artikulua.– Dirulaguntzak elkartzeaz.

Laguntza publikoen zenbateko osoa ezingo da diruz laguntzeko moduko kostuen % 50 baino gehiago izan, salbu Europar Batasuneko estatu kide batek baino gehiagok finantzatutako mugaz haraindiko ekoizpena bada, eta estatu kide bat baino gehiagoko ekoizleak baditu. Horrelakoe-tan, laguntza publikoen zenbateko osoa diruz laguntzeko moduko kostuen % 60 izan daiteke. Ikus-entzunezko lan zailak muga horien aplikaziotik salbuesten dira. Ikus-entzunezko lan zail-tzat zeintzuk jotzen diren eta horien mugak zeintzuk diren jakiteko, Zinemaren abenduaren 28ko 55/2007 Legea garatzen duen abenduaren 4ko 1084/2015 Errege Dekretuaren 21.2 artikuluan ezarritakoa beteko da.

10. artikulua.– Bateragarritasuna.

Agindu honetan ezarritako mugei kalterik egin gabe, deialdi honetan aurreikusitako dirulagun-tzak eta beste edozein erakunde publikok edo pribatuk emandakoak batera erabil daitezke helburu berbererako; betiere, horrek gainfinantzatzea ez badakar. Horrelakorik gertatuz gero, gehienez murrizt dakiokkeen kopurua murriztuko zaio emandako dirulaguntzaren zenbatekoari.

11. artikulua.– Ebazpena.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak esleitzeko prozedura Kulturako sailburuordeak ebatziko du, Balorazio-batzordeek egindako proposamena ikusi ondoren.

2.– Ebazpen hori sei hilabeteko epean jakinaraziko zaie banan-banan interesdunei. Horretaz gainera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, denek horren berri izan dezaten.

3.– Ebazteko epea igarota interesatuari ebazpena jakinarazten ez bazaio, dagokion eskabidea ezetsi egin dela ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren ondorioetarako. Horrek ez du Administrazioa salbuesten, ordea, ebazpen adierazia emateko duen obligaziotik.

4.– Nolanahi ere, onuradunei dirulaguntzak eta laguntzak eman eta, hala badagokio, ordain-tzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta hauen erakunde autonomiadunek ematen dituzten izaera bereko laguntza edo dirulaguntzen arloan hasi eta oraindik ere izapidean den itzultze- edo zehapen-prozedura orok amaituta beharko du. Halaber, dirulaguntza emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da jasotako dirulaguntza itzultzea, baldin eta, itzulketa-prozedura bat amaitu ondoren, horretarako ebazpena eman bada eta ordaintzeko borondatezko epea igaro bada.

12. artikulua.– Jakinarazpenak izapidetzea presentzian eta telematikoan.

1.– Izapideak bertaratuta eginez gero, jakinarazpena egindakotzat joko da Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 42. Artikuluan xedatutakoaren arabera.

2.– Izapidetze telematikoaren kasuan, aldiz, 21/2012 Dekretuan, otsailaren 21ekoa, Administrazioa Elektronikoa buruzkoa, xedaturikoari jarraiki, jakinarazpena egindakotzat joko da pertsona interesdunak edo, kasuan kasu, legezko ordezkariak edo baimenduriko pertsonak jaso duela elektronikoki sinatzen duenean, eta kasu bakoitzean ezarritako epea hark jakinarazpeneko egintza jaso izana elektronikoki sinatzearen biharamunetik aurrera hasiko da zenbatzen. Interesatuari abisatu ahal zaio edozein euskarri elektronikoa erabilita jakinarazpena duela helbide elektronikoa. Abisu hori aukerakoa da eta balio informatiboa baino ez du, eta abisurik ez badago horrek ez du eraginik jakinarazpen zuzentasunean.

Jakinarazitako egintza aipatutako Dekretuan aipatzen den helbide elektronikoa interesdunaren edo haren legezko ordezkariaren edo baimendutako pertsonaren esku jartzen denetik hamar egun naturaleko epea igaro eta gero, interesdunak haren edukia eskuratzen ez badu, jakinarazpena ezetsizat joko da. Horrela, izapidea egindakotzat joko da eta prozedurak aurrera egingo du, salbu eta ofizioz edo hartzaileak jakinarazita, jakinarazpena ikustea teknikoki edo materialki ezinezkoa izan dela egiaztatzen bada.

13. artikulua.– Onuradunaren betebeharrak.

Agindu honetan araututako laguntzak jasotzen dituztenek betebeharrak izango dituzte:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, dirulaguntza eman dela adierazten duen jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean pertsona/erakunde onuradunek berriaz uko egiten ez badiote, laguntza onartutzat emango da.

b) Onuraduna erregistratu gabe badago Eusko Jaurlaritzako Ogasuna eta Ekonomia Saileko Hirugarrenen Erregistroan, edota Erregistroan dauden bankuko datuak aldatu nahi baditu, Eusko Jaurlaritzako hirugarrenaren altari buruzko inprimakia aurkeztea.

c) Dirulaguntzari eman zaion xede horretarako erabiltzea.

d) Ogasuna eta Ekonomia Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari dirulaguntzen fiskalizazio-lanetan behar duten informazio guztia ematea.

e) Diruz lagundutako proiektua deialdirako aurkeztu diren baldintzetan garatzea. Aldaketak idatziz jakinaraziko zaizkio Kulturako sailburuordeari, eta honek jakinarazpena jasotzen duen egunetik hamabost egun baliouduneko epea izango du horiek onartu edo gaitzesteko. Epea inolako jakinarazpenik gabe igaroz gero, aurkeztu den aldaketa onartu dela ulertuko da. Inola ere ezingo da aldaketa horien bidez dirulaguntzaren kopurua igo.

f) Laguntza ematen duen organoari Estatuko nahiz mundu mailako beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuak xede bererako ematen dituzten bestelako laguntza edo dirulaguntzak jasotzen diren jakinaraztea.

g) Onuradunek konpromisoa hartzen dute diruz lagundutako lanen hasierako kredituei dagozkien informazio, publizitate, sustapen eta izenburu guztietan eta ondorio horretarako erabiltzen diren edozein hedabidetan lanak Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntzaz egin direla adierazteko. Halaber, «Basque audiovisual» markaren zabalpena publikoarentzat era irakurgarri batean egingo da.

h) Argitaratutako promozio-material guztien ale bat Kultura Sustatzeko Zuzendaritzan aurkeztea.

i) Ekoizpenaren jatorrizko bertsioa euskaraz denean filmaren emanaldi guztiak Euskal Erkide Autonomoko zine areto komertzialetan, zine jaialdietan edo ikus-entzunezko jaialdietan hizkuntza horretan izan beharko dira, azpigituluak edozein hizkuntzatan direlarik.

j) Agindu honetan laguntza-modalitate bakoitzerako ezartzen diren betebeharrak eta baldintzak betetzea, eta baita Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren kargurako diren laguntza eta dirulaguntzak jaso ahal izateko ezartzen direnak ere.

k) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako betebeharrak.

14. artikulua.– Laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzea eta likidatzea.

Laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatu delako, edo beste edozein administrazioetatik edo erakunde publiko zein pribatutatik beste laguntza edo dirulaguntza batzuk jaso direlako, edo, hala badagokio, helburu bererako beste diru-sarrerara edo baliabide batzuk eskuratu direlako, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da, betiere agindu honetan ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen badira. Laguntzaren justifikazioa ez bada iristen laguntza emateko kontuan hartutako aurrekontuaren % 70era, ez-betetzat joko da, eta dirulaguntza osorik itzuli beharko da. Muga horretatik gora, aurreikusitakoa baino exekuzio txikiagoa onartuko da, baina, nolana ere, proportzionalki murriztuko da ezarritako gehieneko laguntza-ehunekoak gainditzen badira. Horretarako, Kulturako sailburuordeak kitapen-ebazpena emango du, eta esleitu diren laguntzen zenbatekoak berregokituko dira bertan.

15. artikulua.– Baldintzak ez betetzea.

1.– Honelakoak izango dira ez-betetzeak:

a) Jasotako laguntzak, osorik zein zatika, agindu honetan adierazi bezala onartutako jardueretarako erabili beharrean, beste zerbaitearako erabiltzea.

b) Agindu honetan ezarritako betebeharrak edo, hala badagokio, laguntza ematerakoan ezartzen direnak ez betetzea.

c) Hala badagokio, dirulaguntzaren likidazio-ebazpenean zehaztutako diru-kopurua ez itzultzea, horretarako emandako epearen barruan.

d) Aurkeztutako proiektuan Kulturako sailburuordeak baimendu gabeko aldaketaren bat egitea.

e) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37.1 artikularen b, c, d, e, f edota g ataletan aurreikusitakoak.

2.– Horrelako kasuren bat gertatu dela egiaztatzen bada, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antalarauari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena, eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan, Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorraren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten Erakunde Laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena, aurreikusi bezala eta bertan ezarritakoa bete ondoren, Euskal Herriko Diruzaintza Orokorrari itzuli beharko zaizkio jasotako diru-kopuruak eta legez dagozkien interesak.

II. KAPITULUA

FILM LUZEEN PRODUKZIORAKO DIRULAGUNTZAK

16. artikulua.– Laguntzen xedea.

1.– Ikus-entzunezkoen film luzeen produkzioarako laguntzen xedea jarraian zehazten diren ekoizpen-modalitateak izango dira. Laguntza hauei zuzendutako zuzkidura bi milioi eta ehun mila (2.100.000,00) eurokoa da, modalitate bakoitzean finkatzen denaren arabera banatua.

2.– Ez dute laguntza hauek jasotzeko aukera izango deialdi honetako eskabideak aurkezteko epea bukatu baino lehen filmatzen hasi diren obrek.

3.– Diruz lagunduko diren produkzio-modalitateak honakoak dira:

a) Zinemarako fikziozko film luzeen produkzioa, kapitulu honetako I. atalean ezartzen diren baldintzetan.

b) Aurrekontu txikiko zinemarako fikziozko film luzeen produkzioa, II. ataleko baldintzetan.

c) Zinemarako animaziozko film luzeen produkzioa, III. ataleko baldintzetan.

d) Sortze-dokumental film luzeen produkzioa, IV. ataleko baldintzetan.

17. artikulua.– Onuradunak.

1.– Film luzeen produkzioarako laguntzak eskuratzeko honako baldintzak bete behar dira: pertsona fisiko edota juridiko independenteak izatea, Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu kideren batean egoitza izatea eta laguntza jasoz gero Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza egonkorra izateko konpromisoa hartzea.

2.– Ekonomia-intereseko Taldeek, beti ere sozietatearen helburua ekoizpen jardueretan aritzea bada eta Merkataritza Erregistroan horrela inskribatuta baldin badago, dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte produkzio-etxe independenteek bezalaxe. Ekonomia-intereseko Taldea osatzen duten ekoizle ez independenteek ezingo dute kapital sozialaren % 20 baino gehiago eduki produkzio prozesuak irauten duen bitartean. Horrela xedatzen du Zineari buruzko, abenduaren 28ko 55/2007 Legearen 4.n) 1.2.º artikulua.

Agindu honetako 26.2.1, 29.2.1, 32.2.1 eta 35.2.1 artikuluetan aurreikusten den eskatzailearen ekonomia-kaudimena eta ibilbidearen balorazioa eskabidearekin batera izendatzen den Ekonomia-intereseko Taldearen kide independenteari buruzkoa izango da.

3.– Pertsona fisiko edo juridiko independentea izango da Zinemari buruzko abenduaren 28ko 55/2007 Legearen 4. artikuluko n) letran hala agertzen dena.

4.– Pertsona fisiko edota juridiko batek establezimendu egonkor baten bidez diharduela zehazteko, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontzertu Ekonomikoa onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 21.2 artikulua zer dioen hartuko da aintzakotzat.

18. artikulua.– Betekizunen akreditazioa eta aurkeztu beharreko agiriak.

Film luzeen eta dokumentalen produkzioarako modalitateetan eskaerarekin aurkeztu beharreko agiriak honako hauek dira:

1.– Eskatzaileari dagokionez:

1.1.– Identitateari buruzko datuak: Eskaera sinatzen duenaren identitatearen egiaztatzea

Administrazio publikoak esleitua dituen egiztapen-, kontrol- eta ikuskaritza-ahalmenak alde batera utzi gabe, pertsona edo entitate eskatzaileak, espresuki eman dezake baimena organo kudeatzaileak datu horiek lortu edo egiaztatzeko.

1.2.– Zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.

Deialdi honen organo kudeatzaileak egiaztatuko du, automatikoki, pertsona edo eskatzaileak baldintza hauek betetzen dituela, eta horretarako ez du pertsona edo entitate horien oniritzia beharko, halaxe xedatzen du-eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak. Nolanahi ere, eskatzaileak egiztapena egiteko baimena berariaz ukatu dezake, baina, kasu horretan, dagokion egiaztatzea aurkeztu beharko du.

1.3.– Pertsona juridikoak izanez gero: Administrazio honetako erregistroetan inskribatutako entitateak eskaeran zein erregistrotan dagoen inskribaturik azalduz gero, ez da beharrezkoa izango horren inguruko dokumentaziorik.

Beste administrazioetako erregistroetan inskribatutako entitateek egiaztatu beharko dute sortze-eskritura eta estatutuak eta dagozkien erregistro publikoetan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria eta ordezkaria den pertsonaren identitatea, eta honek daukan legezko ordezkarietako ahalmena.

1.4.– Eskatzailea Ekonomia-intereseko Taldea bada, taldea osatzen duten entitateak zehazten duen adierazpena eta horrez gain taldearen konpromisoa. Konpromiso honen bidez bermatuko da taldea osatzen duten ekoizle ez independenteek kapital sozialaren % 20 baino gehiago ez dutela izango produkzio prozesuak irauten duen bitartean.

2.– Proiektuari dagokion dokumentazioa:

a) Proiektu berarentzat eskatu eta lortu diren beste laguntzen gaineko adierazpen eta haien zenbatekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa ezarritako ereduaren arabera: <https://www.euskadi.eus>

b) Proiektuaren argibide-memoria.

c) Gidoiaren sinopsia.

d) Gidoia.

e) Gidoiaren jabego intelektualaren eskubideen egiaztatzea eta hala badagokio jatorrizko lanarena; ezin bada hori egiaztatu, eskubideak lagatzeko kontratua egiteko baldintzak hitzartuta daudela ziurtatu.

f) Aurrekontua, partidaka zehaztua.

g) Ekoizpen-plana.

h) Finantzaketaren plana, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa ezarritako ereduaren arabera: <https://www.euskadi.eus>.

i) Fitxa teknikoa eta artistikoa.

- j) Zuzendariaren, gidoilariaren eta ekoizlearen historial profesionala.
- k) Proiektuan proposatu den zuzendariaren idatzizko onarpena.
- l) Aurreikusitako egutegia eta filmaketarako plana, denbora eta lekuak zehaztuz.
- m) Merkaturatzeko eta banaketarako plan zehaztua.
- n) Koprodukzio kontratuen kopia konpultsatuak:
 - Nazioarteko koprodukzioetan, koprodukzio-proiektua onartzen duen ebazpena, ICAAk (Zinematografia eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuak) emana, bai eta produktorekide guztiek sinatutako koprodukzio-kontratuaren azken bertsioa.
 - Estatuko koprodukzioetan, produktorekide guztiek fede-emaile publiko baten aurrean produktorekide guztiek sinatutako koprodukzio-kontratuaren azken bertsioa.
- o) Enpresa-ekoizlearen azken bost urteotako historial profesionala eta datozen bi urteotako ekoizpen-aurreikuspenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan ezarritako ereduaren arabera: <https://www.euskadi.eus>

19. artikulua.– Kotsiderazio orokorrak laguntzen mugen inguruan.

1.– Banakako produktoreei dagokienez, ematen den gehieneko laguntzak, gainera, aplikagarriak diren muga hauek izango ditu:

- Ez du produkziarako aurrekontuaren % 20 gaindituko.
- Ez du produktorearen inbertsioa gaindituko.

Goian aipatutako ondorioetarako, produktoreen inbertsioetat joko dugu produktoreak berak bere baliabide propioen bidez nahiz itzul daitezkeen kanpo-baliabideen bidez ekarritako kopurua eta film luzea ustiatzeko eskubide-lagapen gisa lortutakoa. Inoiz ez dira produktorearen inbertsioetat joko jasotako dirulaguntzak, ezta edozein izaeratakoak diren eta itzul ezin daitezkeen ekarpenak ere, baldin eta telebista-zerbitzu publikoak zuzenean nahiz zeharka kudeatzen duen edozein administrazio, erakunde edo enpresa publikok egiten baditu.

2.– Koprodukzioei dagokienez, eskatzaileak ikus-entzunezko produkzioaren % 20ko titulartasuna izan beharko du gutxienez –% 50ekoa izango da aurrekontu txikiko fikziozko film luzeetarako lerroan–.

Nazioarteko koprodukzioetan, koprodukzio-proiektua onartzen duen ebazpenaren kopia konpultsatua aurkeztu beharko da, Zinematografia eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuaren (ICAA) zuzendari nagusiak emana, bai eta produktorekide guztiek sinatutako koprodukzio-kontratuaren azken bertsioaren kopia konpultsatua ere.

Estatuko koprodukzioetan, produktorekide guztiek fede-emaile publiko baten aurrean sinatutako koprodukzio-kontratuaren azken bertsioaren kopia konpultsatua aurkeztu beharko da, non produktorekide bakoitzaren ekarpenak zehaztuko diren, eta horien kuantifikazioa ekarpena dirutan izan ezean.

Eskatzailearen titularitate-kuotan aldaketarik egonez gero, horren berri eman beharko zaio organo kudeatzaileari, erabakiaren egunetik hamabost eguneko epean.

Ekoizpena koprodukzioa denean onuradun izan daitekeen enpresa batek baino gehiagok parte hartuz gero, 17. artikulua arabera, euretako bakoitzaren parte-hartzeen batuketara egingo da.

Batera produzitutako proiektuetan, gehienez eman daitekeen laguntzak honako mugak izango ditu:

- Ez du produkzioarako aurrekontuaren % 20 gaindituko.
- Ez du gaindituko agindu honen arabera onuradun gertatzen den produktoreak, edo koproduttore guztiek batera, egindako inbertsioaren % 50.

Goian aipatutako ondorio hauetarako, inbertsioztat joko dugu produktoreak berak baliabide propioen bidez nahiz itzul daitezkeen kanpo-baliabideen bidez ekarritako kopurua eta, frogatutako proiektuaren titulartasuneko ehunekoaren arabera, film luzea ustiatzeko eskubide-lagapen gisa lortutako kopurutik dagokion zatia. Inoiz e dira produktorearen inbertsioztat joko jasotako dirulaguntzak, ezta edozein izaeratakoak diren eta itzul ezin daitezkeen ekarpenak ere, baldin eta telebista-zerbitzu publikoak zuzenean nahiz zeharka kudeatzen duen edozein administrazio, erakunde edo enpresa publikok egiten baditu.

3.– Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden auditoreek kreditatuko dituzte film luzearen kostua, produktoreek egindako ekarpenak eta horiek produkzioan duten titulartasunaren kuotak, bai eta 23.b artikuluan ezartzen den betebeharraren betetzeari buruzkoa egiaztagiria ere, filmaren gastuak berrikusteko kontu-ikuskatze bereziaren bidez. Txosten horretan, auditoreak honakoak azaldu beharko ditu: bere iritzia enpresa onuradunak egindako inbertsioen inguruan; horien balorazioa eta kontabilizazioa, oro har aplikatzen diren kontabilitate-irizpideetan oinarrituta; eta, azkenik, inbertsioa finantzatzeko onuradunak jaso dituen gainerako laguntza edota dirulaguntzei buruzko berariazko iritzia. Kontu-ikuskatzeak zehaztu beharko du, partiden arabera banakatzearen bidez, zein gastu-maila dagokien Euskadin helbidea edo egoitza egonkorra duten pertsona fisiko edo juridikoek egindako lanei. Filmaren kostua aitortzea eta ekoizlearen inbertsioa arautzen duen abenduaren 18ko ECD/2784/2015 Aginduaren 2. artikuluan aurreikusten den eran dira film luzearen ekoizpen-kostuak diruz laguntzeko modukoak.

20. artikulua.– Behin betiko agiriak.

1.– Laguntza eman dela jakinarazten denetik, produkzio-etxe onuradunek gehienez ere sei hilabeteko epea izango dute proiektuari dagozkion honako agiriak aurkezteko, bide presentziala zein bide elektronikoa erabiliz pertsona fisikoen kasuan, eta bide elektronikoa erabiliz pertsona juridikoak direnean, honako gune honetan <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

- Euskadiko Autonomia Erkidegoan egoitza egonkorra izatea egiaztatzen duen agiria.
- Behin betiko aurrekontua eta ordainketak egiteko egutegia.
- Proiektuak guztizko kostuei aurre egiteko finantzaketaren % 50 duela egiaztatzea.
- Pertsonal artistikoarekin (aktore nagusiak) eta teknikariek (zuzendariak eta ekipo-buruak) sinatutako kontratuak.
- Beste laguntza edota dirulaguntza batzuk lortu diren edo ez diren adierazten duen ardurapeko aitortpena.
- Koproduttore izateko behin betiko kontratuak (hala badagokio).
- Filma ustiatzeko eskubideen behin betiko kontratuak.
- Produkzio-etxeak produkzioak irauten duen denboran bertako pertsonalari Gizarte Segurantzian alta emango zaiola egiaztatzen duen ardurapeko aitortpena ere.

2.– Finantzaketa-plana egiaztatzeko, honako jatorrizko agiriak edo horien fotokopia konpultsatuak ekarriko dira:

- Telebista-kateekin edo banaketa-elkarteekin sinaturiko kontratuak.
- Onuradunak finantzaketa-planean bildutako fondo propioak benetan badaudela, banku-abal baten bitartez bermatuta edo elkarrekiko berme-baltzu batek abalatuta.
- Filma finantzatzeko onuradunak jasotako bestelako laguntza edo dirulaguntzen egiaztapena.
- Produzioaren kostua ordaintzeko diru-sarrerak ekar ditzaketen beste finantzabide batzuk.

3.– 1. apartatuan adierazitako agiriak aurkezten ez badira, Kulturako sailburuordearen ebazpenaren bidez zera aginduko da: proiektu horretarako oraindik ordaintzeke dagoen zuzkidura Balorazio-batzordeak hautatutako proiektuen zerrendako hurrengoari esleitzeko, itzulketa-prozeduraren ondoren.

21. artikulua.– Laguntza jasotzen duen produkzioa egiteko epea.

Laguntza eman dela jakinarazten denetik, erakunde onuradunak gehienez ere bi urteko epea izango du film luzea filmatzen hasteko eta hiru urteko epea, berriz, filma ekoizten amaitzeko eta lehen kopia estandarra lortzeko. Zinemarako diren animaziozko film luzeei dagokionez erakunde onuradunak hiru urteko epea izango du filmaren ekoizpena amaitzeko.

22. artikulua.– Laguntzaren ordainketa.

Zuzendaritza kudeatzaileak Ogasuna eta Ekonomia Sailean tramitatuko du laguntzen ordainketa; tramitatzea honela egingo da:

- a) Laguntza emateko unean lehenengo % 20 ordainduko da.
- b) % 45, proiektuaren behin betiko agiriak, 20. artikuluan deskribatzen direnak, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailean jasotzen direnean, beti 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera.
- c) % 15, filmatzen amaitu denaren komunikazioa jasotzean, edota story board-a amaitu denaren komunikazioa jasotzean animaziozko film luzeen kasuan eta beti 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera.
- d) Gainerako kopurua (% 20), honako agiriak jasotzean eta beti 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera, baina urte horretako azaroaren 30 baino lehenago:

– Euskadiko Filmetegia Fundazioaren ziurtagiria, filmaren kopia utzi dela egiaztatzen duena, 23. artikuluko e) letran adierazi bezala.

– ISAN Erregistroaren Iberoamerikako Agentzian (ARIBSAN) ISAN erregistroa esleitzeko izapideak bete direla egiaztatzen duen agiria.

– Filmaren kostuari, produktoreek egindako ekarpenei eta produzioaren titulartasun-kuotei buruzko kontu-ikuskatzea, bai eta Euskadiko giza eta enpresa baliabideetan portzentajea betetzeari buruzko egiaztagiria ere, eskabidearekin batera aurkeztutako agirietan aipatutakoaren arabera.

Agiri horiek aurkeztuko dira bide presentziala erabiliz zein bide elektronikoa pertsona fisikoak direnean, eta bide elektronikoa erabiliz soilik pertsona juridikoak direnean, <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta> gunean.

Laguntzaren edo dirulaguntzaren zenbatekoari kendu egingo zaizkio, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) atxikipenak eta konturako ordainketak, hala badagokio zergaren araudia aplikatuz.

23. artikulua.– Betebeharrak.

Aginduaren 13. artikuluan jasotako betebeharrei kalterik egin gabe produkzio-etxe onuradunak honako baldintza hauek betetzeko konpromisoa hartuko du:

a) Laguntza eman dela jakinarazten denetik bi urteko epean filmatzen hasia; epe hori behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio luzatu ahal izango da soil-soilik. Betebehar honek ez dagokie zinemarako diren animaziozko film luzeei.

b) Onuradunak ikus-entzunezko ekoizpenaren aurrekontuaren % 32, gutxienez, erabili beharko du Euskadiko Autonomia Erkidegoan egoitza edo establezimendua duten pertsona fisiko edo juridikoek egindako lanetarako. Koproduzioen kasuan, aipaturiko % 32 hori aplikatuko zaio onuradunak ikus-entzunezko ekoizpenean duen partaidetza-kuotari.

c) Kultura Saileko Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari filmaketaren hasierako eta bukaerako datak jakinaraztea; lehena, hasi baino gutxienez 10 egun aurretik, eta bigarrena, amaitu eta gehienez 20 egun ondoren.

d) Produkzioa gehienez laguntza eman dela jakinarazten denetik hiru urteko epean amaitzea.

e) Euskadiko Filmategia Fundazioan laborategiko filmaren kopia berri bat utzi dela frogatzen duen egiaztapena, inolako akatsik ez duena, zinema-aretoetako estreinaldiko emanaldi eta formatuan eta jatorrizko bertsioan; horrekin batera, ekoizpenaren kopia bat Betacam Digital-ean, lanaren estreinatutako bertsio komertzialen DVD bana, elkarrizketen zerrenda jatorrizko bertsioan eta bikoiztutako hizkuntzetan, sei gida, sei hormirudi eta sei argazki, eta, azkenik, Euskal Herriko film-ondarea kontserbatzeari eta zabaltzeari begira interesgarria izan litekeen beste edozein sustapen-dokumentazio, inola ere erabilera komertziala izango ez duena.

Lanaren ekoizpena eta erakustea euskarri bideografikoan egiten bada, gordailua Betacam Digital-eko kopia batean egingo da, bai eta estreinatutako bertsioen hizkuntzetako DVD banatan ere. Horrekin batera, arestian aipatutako sustapen-dokumentazioa aurkeztuko da.

Edozein kasutan ere, lehenengo erakusketa publikoa egiten denetik 30 egun baino lehenago egingo dira lanen gordailuak.

f) Filmaren kostuari, produktoreek egindako ekarpenei eta produkzioaren titulartasun-kuotei buruzko kontu-ikuskatzea aurkeztea, bai eta Euskadiko giza eta enpresa baliabideetan portzentajea betetzeari buruzko egiaztagiria ere, eskabidearekin batera aurkeztutako agirietan aipatutakoaren arabera.

g) Aurrekontu txikiko zinemarako diren fikziozko film luzeei dagokienez, filmaren kostuan 300.000 euroko gehieneko mugari eustea. Muga hori gainditzekotan, laguntzaren kopurua gutxitzeari ekingo zaio ekoizpenaren kostuaren % 20ko mugara iritsi arte, beti ere jasotako dirulaguntzak portzentaje hori gainditzen badu.

I. ATALA

ZINEMARAKO DIREN

FIKZIOZKO FILM LUZEEN PRODUKZIORAKO LAGUNTZAK

24. artikulua.– Laguntzaren xede diren jarduerak.

Laguntzen modalitate honetan, 27.artikuluaren 1. atalean ezartzen diren baldintzak betetzen ez dituzten edozein hizkuntzatako zinemarako fikziozko film luzeak egitea bultzatuko da.

Ondorio hauetarako zinemarako film luzea da: ikus-entzunezko obra, hirurogei minutu edo gehiagoko iraupena duena eta zinema-aretoetan merkatal ustiapenerako dena.

25. artikulua.– Laguntzen muga.

1.– Laguntza-modalitate honetara zuzendutako kopurua, guztira, milioi bat ehun eta hamar mila (1.110.000,00) eurokoa da.

2.– Edonola ere, xede bererako deialdi honen babesean eman daitezkeen laguntzen kopuruak ezingo ditu hirurehun mila (300.000,00) euro gainditu, salbu eta jatorrizko hizkuntza euskara duten ekoizpenen kasuan.

26. artikulua.– Balorazio eta hautapen irizpideak.

Balorazio-batzordeak jasotako eskabideak aztertuko ditu eta jarraian aipatzen den baremoaren arabera ondoren zehazten diren alderdiak ebaluatuko ditu:

1.– Lehen fasea: (90 puntu):

1.1.– Proiektuaren finantzaketa: 30 punturaino. Errealizaziorako guztizko aurrekontuari dagokionez proiektuak dituen finantzaketa-baliabideen ehunekoaren arabera esleituko dira. Baliabide hauen ingurukoak frogatze aldera, honakoak aurkeztuko dira: laguntza edo dirulaguntzak jasotzeko eskubidearen egiaztagiriak, hirugarrenekin sinatu diren ustiapen-kontratuak (eskubideen lagapen-kontratuak, produkzio- eta banaketa-kontratuak...), baliabide propioak banku-abal baten bitartez bermatuta edo elkarrekiko berme-baltzu batek abalatuta eta kapitalizazioak film luzearen aurrekontuaren % 15 mugarekin azken kasu horretan aurkeztutako proiektuan parte hartzeagatik ordainsari osoa edo zati bat kapitalizatzen duen pertsonak sinatu beharko du. Koprodukzio-kontratuetan, laguntzak jasotzeko eskubidearen egiaztagiriak erantsi beharko dira, bai eta ustiapen-kontratuak edo koproduktoreen banku-egiaztagiriak ere. Puntuak proportzionalki esleituko dira, finantzaketa-ehuneko altuena duen eskatzaileak puntu gehien izango dituela kontuan hartuta, betiere finantzaketaren % 60koko mugarekin.

1.2.– Nazioarteko koprodukzioa: 10 punturaino.

1.3.– Garatu beharreko gidoiaren kalitatea, originaltasuna eta bideragarritasuna, gehienez 30 punturaino. honako irizpideen arabera emandakoak: kalitatea 10 puntu, originaltasuna 10 puntu eta bideragarritasuna 10 puntu.

1.4.– Balio artistikoko ekimena ote den, gehienez 10 punturaino.

1.5.– Banaketa eta marketing estrategia, gehienez 10 punturaino.

Proiektuaren finantzaketaren balorazioan gutxienez 10 puntu lortzen ez dituzten eskabideak, gidoiaren balorazioan gutxienez 15 puntu lortzen ez dituztenak edo lehenengo balorazio-fase honetan gutxienez 45 puntu lortzen ez dituztenak deialditik kanpo geratuko dira eta ez dira bigarren fasean baloratuko.

2.– Bigarren fasea: (60 puntu):

2.1.– Eskatzailearen ekonomia-kaudimena eta haren ibilbidea eta beraren taldearena: 5 punturaino, honako irizpide hauen arabera emandakoak: egindako eta estreinatutako film luzeen kopurua, zinemaldietan izandako hautaketa eta sariak, enpresaren antzintasuna, finantza-erakundearen txostena eta azken hiru urteetako Gizarte Segurantzako kotizazioaren bolumena.

2.2.– Filmaketa Euskadin egitea: 5 punturaino. Hauek esleitzeko, guztira filmaketak iraungo duen denboratik Euskadin filmatzen diren egunak hartuko dira kontuan. Dena den, filmaketa edonon eginda ere, eskatzaileak produkzio aurrekontuaren % 50era arte gastatu ahalko du Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldetik kanpo..

2.3.– Euskadin egindako gastua: 5 punturaino. Euskadin egoitza duten pertsona edo enpresek eskaintzen dituzten sormenezko baliabideak eta baliabide artistiko eta teknikoak kontratatzean egiten den inbertsioaren ehunekoa kontuan hartuta esleituko dira; ehuneko hori aurrekontuaren % 32 edo hortik gorakoa izango da, eta koprodukzioa denean koprodukzioaren parte-hartzearen % 32 edo hortik gorakoa izango da. Inbertsioaren ehunekoa aurrekontuaren % 50etik gorakoa denean puntu gehien lortuko ditu.

2.4.– Euskadin bizi diren edo bertan egoitza duten talde tekniko eta artistikoen parte-hartzea: 10 punturaino. honako irizpideen arabera emandakoak: Zuzendaria: 2 puntu, gidoilaria: puntu bat, argazki zuzendaria: puntu bat, musikaren egilea: puntu bat, ekoizle exekutiboa: puntu bat, ekoizle zuzendaria: puntu bat, zuzendari artistikoa: puntu bat, muntatzailea: puntu bat, aktore nagusiak: puntu bat.

2.5.– Zuzendariaren, gidoilariaren eta ekoizle exekutiboaren historia profesionala, gehienez 10 punturaino.

2.6.– Emakumearen parte-hartzea: gehienez ere 10 puntu, honela esleituko direnak: emakumeak zuzendaritza-lanetan parte hartzeagatik: 3 puntu; gidioia; 2 puntu; ekoizpen exekutiboa: 2 puntu; eta 3 puntu emango dira honako postu hauek betetzen dituzten profesional guztien % 40ra iristen denean gutxienez: musikaren konposizioa, argazki-zuzendaritza, arte-zuzendaritza, muntaia-buruzagitza, zuzeneko soinu-buruzagitza, soinua muntatzeko-zuzendaritza, nahasketa arduraduna, produkzio zuzendaritza, efektu berezi fisikoen zuzendaritza, ikusizko efektu berezien zuzendaritza. Emakumeen parte-hartzea eksklusiboa denean soilik puntutuko du

2.7.– Zuzendari hasiberria: 2 puntu. Zuzendariaren lehenengo edo bigarren film luzea denean.

2.8.– Proiektuaren ibilbidea: 3 punturaino, honako irizpideen arabera emandakoak: Eusko Jaurlaritzaren aurreko deialdiko honako modalitateetako batean dirulaguntzaren bat lortu izan badu: gidioen sorkuntza edota proiektuen garapena. Kontuan izateko dirulaguntza horiek burututa eta behar bezala justifikatuta egon beharko dute, deialdiari dagokion araudiaren arabera, 2 puntu; eta koprodukzio- edo garapen-foretan parte hartzea, puntu bat.

2.9.– Filmaren jatorrizko bertsoia euskaraz filmatzea, gehienez 10 punturaino.

Bigarren balorazio-fase honetan gutxienez 30 puntura iristen ez diren eskabideak ez dira kontuan hartuko, ez proposamen gisa, ezta ordezeko gisa ere.

II. ATALA

AURREKONTU TXIKIKO ZINEMARAKO DIREN

FIKZIOZKO FILM LUZEEN PRODUKZIORAKO LAGUNTZAK

27. artikulua.– Laguntzaren xede diren jarduerak.

1.– Laguntzen modalitate honetan, zinemarako fikziozko film luzeak egitea bultzatuko da beti ere aurrekontua 300.000 eurokoa baino txikiagoa baldin bada eta honako baldintzetako bat betetzen badu:

- Filmaren jatorrizko bertsoia euskaraz izatea.
- Zuzendariaren lehenengo edo bigarren film luzea izatea.

2.– Ondorio hauetarako zinemarako film luzea da: ikus-entzunezko obra, hirurogei minutu edo gehiagoko iraupena duena eta zinema-aretoetan merkatal ustiapenerako dena.

28. artikulua.– Laguntzen muga.

1.– Laguntza-modalitate honetara zuzendutako kopurua guztira berrehun eta berrogeita hamar mila (250.000,00) eurokoa da.

2.– Edonola ere, xede bererako deialdi honen babesean eman daitezkeen laguntzen kopuruak ezingo du gainditu ehun eta hogeita bost mila (125.000,00) euroko kopurua.

29. artikulua.– Balorazio eta hautapen irizpideak.

Balorazio-batzordeak jasotako eskabideak aztertuko ditu eta jarraian aipatzen den baremoaren arabera ondoren zehazten diren alderdiak ebaluatuko ditu:

1.– Lehen fasea: (80 puntu):

1.1.– Proiektuaren finantzaketa: 20 punturaino. Errealizatorako guztizko aurrekontuari dagokionez proiektuak dituen finantzaketa-baliabideen ehunekoaren arabera esleituko dira. Baliabide hauen ingurukoak frogatze aldera, honakoak aurkeztuko dira: laguntza edo dirulaguntzak jasotzeko eskubidearen egiaztagiriak, hirugarrenekin sinatu diren ustiapen-kontratuak (eskubideen lagapen-kontratuak, produkzio- eta banaketa-kontratuak...), baliabide propioak banku-abal baten bitartez bermatuta edo elkarrekiko berme-baltzu batek abalatuta eta kapitalizazioak film luzearen aurrekontuaren % 15 mugarekin, azken kasu horretan aurkeztutako proiektuan parte hartzeagatik ordainsari osoa edo zati bat kapitalizatzen duen pertsonak sinatu beharko du. Koprodukzio-kontratuetan, laguntzak jasotzeko eskubidearen egiaztagiriak erantsi beharko dira, bai eta ustiapen-kontratuak edo koproduktoreen banku-egiaztagiriak ere. Puntuak proportzionalki esleituko dira, finantzaketa-ehuneko altuena duen eskatzaileak puntu gehien izango dituela kontuan hartuta, betiere finantzaketaren % 60koko mugarekin.

1.2.– Garatu beharreko gidoiaren kalitatea, originaltasuna eta bideragarritasuna, gehienez 30 punturaino. Honako irizpideen arabera emandakoak: kalitatea 10 puntu, originaltasuna 10 puntu eta bideragarritasuna 10 puntu.

1.3.– Balio artistikoko ekimena ote den, gehienez 10 punturaino.

1.4.– Proposamenaren izaera berritzailea, gehienez 10 punturaino.

1.5.– Nazioarteko zinemaldietan hedatzeko estrategia, gehienez 10 punturaino.

Gidoiaren balorazioan gutxienez 15 puntu lortzen ez dituzten eskabideak edo lehenengo balorazio-fase honetan gutxienez 35 puntu lortzen ez dituztenak deialditik kanpo geratuko dira, eta ez dira bigarren fasean baloratuko.

2.– Bigarren fasea: (70 puntu):

2.1.– Eskatzailearen ibilbidea: 5 punturaino, honako irizpide hauen arabera emandakoak: egindako eta estreinatutako film luzeen kopurua, zinemaldietan izandako hautaketa eta sariak.

2.2.– Filmaketa Euskadin egitea: 10 punturaino. Hauek esleitzeko, guztira filmaketak iraungo duen denboratik Euskadin filmatzen diren egunak hartuko dira kontuan. Dena den, filmaketa edonon eginda ere, eskatzaileak produkzio aurrekontuaren % 50era arte gastatu ahalko du Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldetik kanpo.

2.3.– Euskadin egindako gastua: 5 punturaino. Euskadin egoitza duten pertsona edo enpresek eskaintzen dituzten sormenezko baliabideak eta baliabide artistiko eta teknikoak kontratatzean egiten den inbertsioaren ehunekoa kontuan hartuta esleituko dira; ehuneko hori aurrekontuaren % 32 edo hortik gorakoa izango da, eta koprodukzioa denean koprodukzioaren parte-hartzearen % 32 edo hortik gorakoa izango da. Inbertsioaren ehunekoa aurrekontuaren % 50tik gorakoa denean puntu gehien lortuko ditu.

2.4.– Euskadin bizi diren edo bertan egoitza duten talde tekniko eta artistikoen parte-hartzea: 15 punturaino. honako irizpideen arabera emandakoak: Zuzendaria: 3 puntu, gidoilaria: 2 puntu, argazki zuzendaria: puntu bat, musikaren egilea: puntu bat, ekoizle exekutiboa: puntu bat, ekoizle zuzendaria: puntu bat, zuzendari-laguntzailea: puntu bat, zuzendari artistikoa: puntu bat, muntatzailea: puntu bat, aktore nagusiak: 2 puntu, bigarren mailako aktoreak: puntu bat.

2.5.– Zuzendariaren, gidoilariaren eta ekoizle exekutiboaren historial profesionala, gehienez 15 punturaino.

2.6.– Emakumearen parte-hartzea: gehienez ere 10 puntu, honela esleituko direnak: emakumeak zuzendaritza-lanetan parte hartzeagatik: 3 puntu; gidoia; 2 puntu; ekoizpen exekutiboa: 2 puntu; eta 3 puntu emango dira honako postu hauek betetzen dituzten profesional guztien % 40ra iristen denean gutxienez: musikaren konposizioa, argazki-zuzendaritza, arte-zuzendaritza, muntaia-buruzagitza, zuzeneko soinu-buruzagitza, soinua muntatzeko-zuzendaritza, nahasketa arduraduna, produkzio zuzendaritza, efektu berezi fisikoen zuzendaritza, ikusizko efektu berezien zuzendaritza. Emakumeen parte-hartzea eksklusiboa denean soilik puntutuko du.

2.7.– Proiektuaren ibilbidea: 5 punturaino, honako irizpideen arabera emandakoak: Eusko Jaurlaritzaren aurreko deialdiko honako modalitateetako batean dirulaguntzaren bat lortu izan badu: gidoien sorkuntza edota proiektuen garapena, hiru puntu. Kontuan izateko dirulaguntza

horiek burututa eta behar bezala justifikatuta egon beharko dute, deialdiari dagokion araudia-
ren arabera. Koprodukzio- edo garapen-foreotan parte hartzea, 2 puntu.

2.8.– Filmaren jatorrizko bertsioa euskaraz filmatzea, gehienez 5 punturaino.

Bigarren balorazio-fase honetan gutxienez 30 puntura iristen ez diren eskabideak ez dira
kontuan hartuko, ez proposamen gisa, ezta ordezeko gisa ere.

III. ATALA

ZINEMARAKO DIREN ANIMAZIOZKO

FILM LUZEEN PRODUKZIORAKO LAGUNTZAK

30. artikulua.– Laguntzaren xede diren jarduerak.

Laguntza-modalitate honetan edozein hizkuntzatan dauden eta zinemarako diren animaziozko
film luzeak egitea sustatuko da.

Ondorio hauetarako zinemarako film luzea da: ikus-entzunezko obra, hirurogei minutu edo
gehiagoko iraupena duena eta zinema-aretoetan merkatal ustiapenerako dena.

31. artikulua.– Laguntzen muga.

1.– Laguntza-modalitate honetara zuzendutako kopurua, guztira, bostehun mila (500.000,00)
eurokoa da.

2.– Edonola ere, xede bererako deialdi honen babesean eman daitezkeen laguntzen kopuruak
ezingo ditu berrehun eta berrogeita hamar mila (250.000,00) euro gainditu, salbu eta jatorrizko
hizkuntza euskara duten ekoizpenen kasuan.

32. artikulua.– Balorazio eta hautapen irizpideak.

Balorazio-batzordeak jasotako eskabideak aztertuko ditu eta jarraian aipatzen den baremoaren
arabera ondoren zehazten diren alderdiak ebaluatuko ditu:

1.– Lehen fasea.– (90 puntu):

1.1.– Proiektuaren finantzaketa: 30 punturaino. Errealizatorako guztizko aurrekontuari
dagokionez proiektuak dituen finantzaketa-baliabideen ehunekoaren arabera esleituko dira.
Baliabide hauen ingurukoak frogatze aldera, honakoak aurkeztuko dira: laguntza edo dirula-
guntzak jasotzeko eskubidearen egiaztagiriak, hirugarrenekin sinatu diren ustiapen-kontratuak
(eskubideen lagapen-kontratuak, produkzio- eta banaketa-kontratuak...), baliabide propioak
banku-abal baten bitartez bermatuta edo elkarrekiko berme-baltzu batek abalaturata eta kapi-
talizazioak film luzearen aurrekontuaren % 15 mugarekin, azken kasu horretan aurkeztutako
proiektuan parte hartzeagatik ordainsari osoa edo zati bat kapitalizatzen duen pertsonak
sinatu beharko du. Koprodukzio-kontratuetan, laguntzak jasotzeko eskubidearen egiaztagi-
riak erantsi beharko dira, bai eta ustiapen-kontratuak edo koproduktoreen banku-egiaztagiriak
ere. Puntuak proportzionalki esleituko dira, finantzaketa-ehuneko altuena duen eskatzaileak
puntu gehien izango dituela kontuan hartuta, betiere finantzaketaren % 60koko mugarekin.

1.2.– Nazioarteko koprodukzioa: 10 puntu.

1.3.– Garatu beharreko gidoiaren kalitatea, originaltasuna eta bideragarritasuna, gehienez 30 punturaino. Honako irizpideen arabera emandakoak: kalitatea 10 puntu, originaltasuna 10 puntu eta bideragarritasuna 10 puntu.

1.4.– Balio artistikoko ekimena ote den, gehienez 10 punturaino.

1.5.– Banaketa eta marketin estrategia, gehienez 10 punturaino.

Proiektuaren finantzaketaren balorazioan gutxienez 10 puntu lortzen ez dituzten eskabideak, gidoiaren balorazioan gutxienez 15 puntu lortzen ez dituztenak edo lehenengo balorazio-fase honetan gutxienez 45 puntu lortzen ez dituztenak deialditik kanpo geratuko dira, eta ez dira bigarren fasean baloratuko.

2.– Bigarren fasea. (60 puntu):

2.1.– Eskatzailearen ekonomia-kaudimena eta haren ibilbidea eta beraren taldearena: 5 punturaino, honako irizpide hauen arabera emandakoak: egindako eta estreinatutako film luzeen kopurua, zinemaldietan izandako hautaketa eta sariak, enpresaren antzintasuna, finantza-erakundearen txostena eta azken hiru urteetako Gizarte Segurantzako kotizazioaren bolumena.

2.2.– Animazio prozesua Euskadin egitea: 5 punturaino. Hauek esleitzeko, guztira animazio prozesuak iraungo duen denboratik Euskadin egingo diren egunak hartuko dira kontuan. Dena den, animazio prozesua edonon eginda ere, eskatzaileak produkzio aurrekontuaren % 50era arte gastatu ahalko du Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldetik kanpo.

2.3.– Euskadin egindako gastua: 5 punturaino. Euskadin egoitza duten pertsona edo enpresek eskaintzen dituzten sormenezko baliabideak eta baliabide artistiko eta teknikoak kontratatzean egiten den inbertsioaren ehunekoa kontuan hartuta esleituko dira; ehuneko hori aurrekontuaren % 32 edo hortik gorakoa izango da, eta koprodukzioa denean koprodukzioaren parte-hartzearen % 32 edo hortik gorakoa izango da. Inbertsioaren ehunekoa aurrekontuaren % 50etik gorakoa denean puntu gehien lortuko ditu.

2.4.– Euskadin bizi diren edo bertan egoitza duten talde tekniko eta artistikoen parte-hartzea: 15 punturaino. honako irizpideen arabera emandakoak: Zuzendaria: 3 puntu; gidoilaria: 2 puntu; argazki zuzendaria: puntu bat; musikaren egilea: puntu bat; ekoizle exekutiboa: puntu bat; animazio zuzendaria: 2 puntu, hondo-diseinatzailea: puntu bat, produkzio zuzendaria: puntu bat, zuzendari artistikoa: puntu bat, muntatzailea: puntu bat, bikoizketa-aktoreak: puntu bat.

2.5.– Zuzendariaren, gidoilariaren eta ekoizle exekutiboaren historial profesionala, gehienez 10 punturaino.

2.6.– Emakumearen parte-hartzea: gehienez ere 10 puntu, honela esleituko direnak: emakumeak zuzendaritza-lanetan parte hartzeagatik: 3 puntu; gidoia; 2 puntu; ekoizpen exekutiboa: 2 puntu; eta 3 puntu emango dira honako postu hauek betetzen dituzten profesional guztien % 40ra iristen denean gutxienez: musikaren konposizioa, argazki-zuzendaritza, arte-zuzendaritza, muntaia-buruzagitza, zuzeneko soinu-buruzagitza, soinua muntatzeko-zuzendaritza, nahasketa arduraduna, produkzio zuzendaritza, efektu berezi fisikoen zuzendaritza, ikusizko efektu berezien zuzendaritza. Emakumeen parte-hartzea eskusiboa denean soilik puntutuko du.

2.7.– Proiektuaren ibilbidea: 5 punturaino, honako irizpideen arabera emandakoak: Eusko Jaurlaritzaren aurreko deialdiko honako modalitateetako batean dirulaguntzaren bat lortu izan badu: gidioen sorkuntza edota proiektuen garapena, 3 puntu. Kontuan izateko dirulaguntza horiek burututa eta behar bezala justifikatuta egon beharko dute, deialdiari dagokion araudia- ren arabera. Koprodukzio- edo garapen-foroetan parte hartzea, 2 puntu.

2.8.– Filmaren jatorrizko bertsioa euskaraz filmatzea, gehienez 5 punturaino.

Bigarren balorazio-fase honetan gutxienez 30 puntura iristen ez diren eskabideak ez dira kontuan hartuko, ez proposamen gisa, ezta ordezeko gisa ere.

IV. ATALA

SORTZE-DOKUMENTAL FILM LUZEEN PRODUKZIORAKO LAGUNTZAK

33. artikulua.– Laguntzaren xede diren jarduerak.

Laguntza-modalitate honetan edozein hizkuntzatan dauden sortze-dokumental film luzeak egi- tea sustatuko da.

Ondorio honetarako, honakoak izango dira sortze-dokumental film luzeak: errealitatetik hartu- tako gaia duten proiektuak; lanak originala izan behar du eta gai zehatz bati buruzko ikerketa edo azterlana, gutxienez merkataritza-ordu beteko iraupena dutenak eta zinema edota telebistarako direnak.

34. artikulua.– Laguntzen muga.

1.– Laguntza-modalitate honetara zuzendutako kopurua, guztira, berrehun eta berrogei mila (240.000,00) eurokoa da.

2.– Edonola ere, xede bererako deialdi honen babesean eman daitezkeen laguntzen kopuruak ezingo ditu hirurogei mila (60.000,00) euro gainditu, salbu eta jatorrizko hizkuntza euskara duten ekoizpenen kasuan.

35. artikulua.– Balorazio eta hautapen irizpideak.

Balorazio-batzordeak jasotako eskabideak aztertuko ditu eta jarraian aipatzen den baremoaren arabera ondoren zehazten diren alderdiak ebaluatuko ditu:

1.– Lehen fasea: (90 puntu):

1.1.– Proiektuaren finantzaketa: 30 punturaino. Errealizatorako guztizko aurrekontuari dagokionez proiektuak dituen finantzaketa-baliabideen ehunekoaren arabera esleituko dira. Baliabide hauen ingurukoak frogatze aldera, honakoak aurkeztuko dira: laguntza edo dirula- guntzak jasotzeko eskubidearen egiaztagiriak, hirugarrenekin sinatu diren ustiapen-kontratuak (eskubideen lagapen-kontratuak, produkzio- eta banaketa-kontratuak...), baliabide propioak banku-abal baten bitartez bermatuta edo elkarrekiko berme-baltzu batek abalatuta eta kapi- talizazioak film luzearen aurrekontuaren % 15 mugarekin, azken kasu horretan aurkeztutako proiektuan parte hartzeagatik ordainsari osoa edo zati bat kapitalizatzen duen pertsonak sinatu beharko du. Koprodukzio-kontratueta, laguntzak jasotzeko eskubidearen egiaztagi- riak erantsi beharko dira, bai eta ustiapen-kontratuak edo koproduktoreen banku-egiaztagiriak ere. Puntuak proportzionalki esleituko dira, finantzaketa-ehuneko altuena duen eskatzaileak puntu gehien izango dituela kontuan hartuta, betiere finantzaketaren % 60ko mugarekin.

1.2.– Nazioarteko koprodukzioa: 10 puntu.

1.3.– Garatu beharreko gidoiaren kalitatea, originaltasuna eta bideragarritasuna, gehienez 30 punturaino. Honako irizpideen arabera emandakoak: kalitatea 10 puntu, originaltasuna 10 puntu eta bideragarritasuna 10 puntu.

1.4.– Balio artistikoko ekimena ote den, gehienez 10 punturaino.

1.5.– Banaketa eta marketin estrategia, gehienez 10 punturaino.

Proiektuaren finantzaketaren balorazioan gutxienez 10 puntu lortzen ez dituzten eskabideak, gidoiaren balorazioan gutxienez 15 puntu lortzen ez dituztenak edo lehenengo balorazio-fase honetan gutxienez 45 puntu lortzen ez dituztenak deialditik kanpo geratuko dira, eta ez dira bigarren fasean baloratuko.

2.– Bigarren fasea: (60 puntu):

2.1.– Eskatzailearen ekonomia-kaudimena eta haren ibilbidea eta beraren taldearena: 5 punturaino, honako irizpide hauen arabera emandakoak: egindako eta estreinatutako film luzeen kopurua, zinemaldietan izandako hautaketa eta sariak, enpresaren antzinatasuna, finantza-erakundearen txostena eta azken hiru urtealdietako Gizarte Segurantzako kotizazioaren bolumena.

2.2.– Filmaketa Euskadin egitea: 5 punturaino. Hauek esleitzeko, guztira filmaketak iraungo duen denboratik Euskadin filmatzen diren egunak hartuko dira kontuan. Dena den, filmaketa edonon eginda ere, eskatzaileak produkzio aurrekontuaren % 50era arte gastatu ahalko du Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldetik kanpo.

2.3.– Euskadin egindako gastua: 5 punturaino. Euskadin egoitza duten pertsona edo enpresek eskaintzen dituzten sormenezko baliabideak eta baliabide artistiko eta teknikoak kontratatzean egiten den inbertsioaren ehunekoa kontuan hartuta esleituko dira; ehuneko hori aurrekontuaren % 32 edo hortik gorakoa izango da, eta koprodukzioa denean koprodukzioaren parte-hartzearen % 32 edo hortik gorakoa izango da. Inbertsioaren ehunekoa aurrekontuaren % 50etik gorakoa denean puntu gehien lortuko ditu.

2.4.– Euskadin bizi diren edo bertan egoitza duten talde tekniko eta artistikoen parte-hartzea: 10 punturaino. honako irizpideen arabera emandakoak: Zuzendaria: 2 puntu; gidoilaria: puntu bat; argazki zuzendaria: puntu bat; musikaren egilea: puntu bat; ekoizle exekutiboa: puntu bat; ekoizle zuzendaria: puntu bat; muntatzailea: puntu bat; soinu-burua: puntu bat; zuzendariaren laguntzailea: 0,5 puntu; dokumentalista: 0,5 puntu.

2.5.– Zuzendariaren, gidoilariaren eta ekoizle exekutiboaren historia profesionala, gehienez 15 punturaino.

2.6.– Emakumearen parte-hartzea: gehienez ere 10 puntu, honela esleituko direnak: emakumeak zuzendaritza-lanetan parte hartzeagatik: 3 puntu; gidoia; 2 puntu; ekoizpen exekutiboa: 2 puntu; eta 3 puntu emango dira honako postu hauek betetzen dituzten profesional guztien % 40ra iristen denean gutxienez: musikaren konposizioa, argazki-zuzendaritza, arte-zuzendaritza, muntaia-buruzagitza, zuzeneko soinu-buruzagitza, soinua muntatzeko-zuzendaritza, nahasketa arduraduna, produkzio zuzendaritza, efektu berezi fisikoen zuzendaritza, ikusizko efektu berezien zuzendaritza. Emakumeen parte-hartzea eskusiboa denean soilik puntutuko du.

2.7.– Proiektuaren ibilbidea: 5 punturaino, honako irizpideen arabera emandakoak: Eusko Jaurlaritzaren aurreko deialdiko honako modalitateetako batean dirulaguntzaren bat lortu izan badu: gidioen sorkuntza edota proiektuen garapena. Kontuan izateko dirulaguntza horiek burututa eta behar bezala justifikatuta egon beharko dute, deialdiari dagokion araudiaren arabera, 3 puntu; eta koprodukzio- edo garapen-foroetan parte hartzea, 2 puntu.

2.8.– Filmaren jatorrizko bertsioa euskaraz filmatzea, gehienez 5 punturaino.

Bigarren balorazio-fase honetan gutxienez 30 puntura iristen ez diren eskabideak ez dira kontuan hartuko, ez proposamen gisa, ezta ordezkotako gisa ere.

III. KAPITULUA

FILM LABURREN PRODUKZIORAKO LAGUNTZAK

36. artikulua.– Laguntzaren xede diren jarduerak.

Laguntza-modalitate honetan edozein hizkuntzatan dauden eta zinemarako diren film laburrak egitea sustatuko da.

Horretarako, film laburtzat edozein euskarritan egindako filmak hartuko dira, iraupena 30 minutu baino gutxiagokoa dutenak.

37. artikulua.– Eskatzaileak.

Film laburren produkzioarako laguntzak eskuratzeko honako baldintzak bete behar dira: pertsona fisiko edota juridiko independenteak izatea, Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu kideren batean egoitza izatea eta laguntza jasoz gero Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza egonkorra izateko konpromisoa hartzea.

38. artikulua.– Laguntzen muga.

1.– Laguntza-modalitate honetara zuzendutako kopurua, guztira, ehun eta hirurogei mila (160.000,00) eurokoa da.

2.– Proiektu zehatz batera zuzendutako kopuruak ezingo du inoiz filmaren gastu-aurrekontuaren % 60 gainditu, ezta hogeita mila (20.000,00) euroko gehienezko zenbatekoa ere.

3.– Laguntza koprodukzio baterako denean, koprodukzio-kontratuaren kopia konpultsatua ekarriko da eta eskatzaileak emaitzako ikus-entzunezko produkzioan gutxienez % 20ko partaidetza izan beharko du. Produkzio bat 17. artikuluan arabera onuradun gerta daitekeen enpresa batek baino gehiagok koproduzitzen badute, enpresa bakoitzak izan duen partaidetza batu eta hori hartuko da kontuan.

4.– Filmaren kostua aitortzea eta ekoizlearen inbertsioa arautzen duen abenduaren 18ko ECD/2784/2015 Aginduaren 2. artikuluan aurreikusten den eran dira film luzearen ekoizpen-kostuak diruz laguntzeko modukoak.

39. artikulua.– Betekizunen akreditazioa eta aurkeztu beharreko agiriak.

Eskabideak aurkezteko argibideak bide presentziala zein elektronikoa erabiliz eta gainerako eredu guztiak eskuragarri daude bai administrazio-bulegoetan bai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa ere: <https://www.euskadi.eus>.

Film laburren produkzioarako modalitatean eskaerarekin aurkeztu beharreko agiriak honako hauek dira.

1.– Eskatzaileari dagokionez:

1.1.– Identitateari buruzko datuak: Eskaera sinatzen duenaren identitatearen egiaztatzea.

Gutxienez dirulaguntzen agindua argitaratu baino urtebete lehenagotik Euskal Autonomia Erkidegoan bizi dela ziurtatzen duen errolda-ziurtagiria, eskatzailea pertsona fisikoa baldin bada

Administrazio publikoak esleitua dituen egiaztapen-, kontrol- eta ikuskaritza-ahalmenak alde batera utzi gabe, pertsona edo entitate eskatzaileak, espresuki eman dezake baimena organo kudeatzaileak datu horiek lortu edo egiaztatzeko.

1.2.– Zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.

Deialdi honen organo kudeatzaileak egiaztatuko du, automatikoki, pertsona edo eskatzaileak baldintza hauek betetzen dituela, eta horretarako ez du pertsona edo entitate horien oniritzia beharko, halaxe xedatzen du-eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak. Nolanahi ere, eskatzaileak egiaztapena egiteko baimena berariaz ukatu dezake, baina, kasu horretan, dagokion egiaztatzea aurkeztu beharko du.

1.3.– Pertsona juridikoak izanez gero: Administrazio honetako erregistroetan inskribatutako entitateak eskaeran zein erregistrotan dagoen inskribaturik azalduz gero, ez da beharrezkoa izango horren inguruko dokumentaziorik.

Beste administrazioetako erregistroetan inskribatutako entitateek aurkeztu beharko dute sortze-eskritura eta estatutuak eta dagozkien erregistro publikoetan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria eta ordezkaria den pertsonaren identitatea, eta honek daukan legezko ordezkarietako ahalmena.

2.– Proiektuari dagokion dokumentazioa:

a) Proiektu berarentzat eskatu eta lortu diren beste laguntzen gaineko adierazpena eta haien zenbatekoa, euskadi.eus gunean ezarritako ereduaren arabera.

b) Proiektuaren argibide-memoria.

c) Gidoiaren sinopsia (gehienez 5 orri).

d) Gidoia.

e) Gidoiaren jabego intelektualaren eskubideen egiaztatzea eta hala badagokio jatorrizko lanarena; ezin bada hori egiaztatu, eskubideak lagatzeko kontratua egiteko baldintzak hitzartuta daudela ziurtatu.

f) Aurrekontua, partidaka zehaztua.

g) Proiektuaren finantzaketa-plana.

h) Fitxa teknikoa eta artistikoa.

i) Zuzendariaren, gidoilariaren eta ekoizlearen historial profesionala.

j) Aurreikusitako egutegia eta filmaketarako plana, denbora eta lekuak zehaztuz.

k) Ekoizpenkidetza-kontratuak, hala behar izanez gero.

40. artikulua.– Balorazio eta hautapen irizpideak.

Balorazio-batzordeak jasotako eskabideak aztertuko ditu eta jarraian aipatzen den baremoaren arabera ondoren zehazten diren alderdiak ebaluatuko ditu:

a) Proiektuaren interes orokorra (% 20), bereziki ekimen artistiko berriak eskaintzeko ematen dituen aukerak eta Euskadik edota bertako biztanleek bizi duten errealitate kultural, sozial edo linguistikoarekin, nahiz beste arlo batekoarekin, duen erlazioa baloratu.

b) Produkzio-proiektuaren balorazioa (% 30). Bereziki honakoak izango dira kontuan:

– aurrekontuaren eta finantzaketa-planaren egokitasuna (%10).

– inplikatzeko diren enpresa- eta giza baliabideak (%10): produkzio-etxe, zuzendari eta gidoi-lariaren curriculum. Produkzio-etxeen, zuzendarien eta gidoi-lariaren historian, aurretik egindako lanak kontuan hartuko dira eta egindako proiektuak ez ezik, jendaurrean izandako eragina eta balorazioa eta komunikabide espezializatuetan agertzen diren kritikak baloratu.

– film laburraren garapena Euskal Autonomia Erkidegoan (%10). Dena den, filmaketa edonon eginda ere, eskatzaileak produkzio aurrekontuaren % 50era arte gastatu ahal du Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldetik kanpo.

c) Autofinantzaketa- edo finantzaketa pribatuaren maila (% 10), bereziki produkzio-etxe eskatzailearen enpresa-arriskua kontuan hartuta eta, koprodukzioei dagokienez, baita euskal produkzio-etxeen partaidetza-ehunekoaren maila ere.

d) Zinematografikoki garatu beharreko gidoiaren kalitatea (% 20).

e) Ikus-entzunezko sortze-lanaren produkzioan edo garapenean, Euskadin bizi diren edo bertan egoitza duten artista, teknikari edo profesionalen parte hartzea (%10). Atal honetan puntuaziorik altuena lortzeko ez da beharrezkoa izango aurrekontuaren % 50 baino gehiago Euskal Autonomia Erkidegoan gastatzea.

f) Emakumearen parte-hartzea zuzendaritza, gidoiaritza, ekoizle exekutibo, argazki zuzendaritza edota musika konposizio lanetan (%10).

Balorazio-baremoaren % 50, gutxienez, lortzen ez duten eskabideak ez dira kontuan hartuko, ez proposamen gisa, ezta ordeko gisa ere.

41. artikulua.– Film laburra egiteko epea.

Onuradunak 2021eko abenduaren 31ra arte izango du deialdi honetan ezartzen diren bete-beharrak betetzeko

42. artikulua.– Laguntzaren ordainketa.

Film laburrak egiteko emandako laguntzaren ordainketa honela banatuko da:

1.– Laguntza emateko unean lehenengo % 50 ordainduko da. Pertsona juridikoen kasuan, Euskadiko Autonomia Erkidegoan egoitza egonkorra izatea egiaztatzen duen agiria aurkeztu ondoren egingo da ordainketa.

2.– % 30, produkzio-etxeak filmaketa hasi dela egiaztatzen duenean eta beti 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera.

3.– Gainerako kopurua (% 20) ere 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, agiri hauek jaso eta gero:

a) Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren izenean eta jabetzapean, Euskadiko Filmategia Fundazioan laborategiko filmaren kopia berri bat utzi dela frogatzen duen egiaztapena, inolako akatsik ez duena, zinema-aretoetako estreinaldiko emanaldi eta formatuan eta jatorrizko bertsioan; horrekin batera, ekoizpenaren kopia bat Betacam Digital-ean, lanaren estreinatutako bertsio komertzialen DVD bana, elkarrizketen zerrenda jatorrizko bertsioan eta bikoiztutako hizkuntzetan, sei gida, sei hormirudi eta sei argazki, eta, azkenik, Euskal Herriko film-ondarea kontserbatzeari eta zabaltzeari begira interesgarria izan litekeen beste edozein sustapen-dokumentazio, inola ere erabilera komertziala izango ez duena.

Lanaren ekoizpena eta erakustea euskarri bideografikoan egiten bada, gordailua Betacam Digi-taleko kopia batean egingo da, bai eta estreinatutako bertsioen hizkuntzetako DVD banatan ere. Horrekin batera, arestian aipatutako sustapen-dokumentazioa aurkeztuko da.

Edozein kasutan ere, lehenengo erakusketa publikoa egiten denetik 30 egun baino lehenago egingo dira lanen gordailuak.

b) Proiektua garatzeak dakartzan gastuei buruzko txostena euskadi.eus gunean ezarritako ereduaren arabera eta egin diren gastuak behar bezala frogatzen dituzten jatorrizko fakturak edo kopia konpultsatuen bitartez eta ordainketa egiaztatzen duten agirien bitartez. Hau frogatzeko beste bide bat ICAAK edo finantza-auditoretzak onetsitako kostu-ziurtagiria aurkeztea da.

c) Beste laguntza batzuei buruzko erantzukizunpeko adierazpena.

d) ISAN Erregistroaren Iberoamerikako Agentzian (ARIBSAN) ISAN erregistroa esleitzeko iza-pideak bete direla egiaztatzen duen agiria.

Agiri horiek aurkeztuko dira bide presentziala erabiliz zein bide elektronikoa pertsona fisi-koak direnean, eta bide elektronikoa erabiliz soilik pertsona juridikoak direnean, <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta> gunean.

43. artikulua.– Betebeharrak.

1.– Agindu honetako 13. artikuluan adierazitako betebeharrei kalterik egin gabe, produkzio-etxe onuradunak honako betebeharrak hauek izango ditu:

a) Lehenengo ordainketa jaso eta gehienez sei hilabeteko epean filmatzen hastea. Epe hau behar bezala justifikatutako arrazoiren bat dela medio baino ezingo da luzatu.

b) Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari filmaketaren hasierako eta bukaerako datak jakinaraztea; lehena, hasi baino gutxienez 10 egun aurretik, eta bigarrena, amaitu eta gehienez 20 egun ondoren.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Izaera Pertsonaleko Datuen Babesaren Arloko Informazio Klausula.

Arduraduna: Kultura Sustatzeko Zuzendaritza, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila.

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba.

Telefonoa: 945 01 80 00

Web orria: <http://euskadi.eus>

Helburua: ikus-entzunezkoen ekoizpenerako prozesuak garatzeko laguntzak eta dirulaguntzak kudeatzea.

Lege-oinarria: Interes publikoaren mesedetan zein tratamenduaren arduradunari esleitutako ahal publikoak gauzatzean egindako zeregina betetzeko beharrezkoa suertatzen den tratamendua da (38/2003, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra, eta 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena).

Jasotzaileak: Gaiaren gaineko eskumena duten Administrazioei jakinarazi ahal izango zaizkie datu pertsonalak.

Eskubideak: Zure datuak ikusteko, zuzentzeko zein ezabatzeko eskubidea duzu; baita haien tratamendua mugatzeko nahiz haren aurka egiteko, informazio gehigarrian adierazten den moduan.

Informazio gehigarria: web helbide hauetan aurkitu ahal izango duzu datu pertsonalen babesari buruzko informazioa gehiago:

<https://www.euskadi.eus/dbao/0127206> fikziozko zinemarako film luzeetan.

<https://www.euskadi.eus/dbao/0127210> aurrekontu txikiko fikziozko film luzeetan.

<https://www.euskadi.eus/dbao/0127207> animaziozko zinemarako film luzeetan.

<https://www.euskadi.eus/dbao/0127208> sortze dokumental film luzeetan.

<https://www.euskadi.eus/dbao/0127209> film laburretan.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 23a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.